

1/1993 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, apirilaren 20koa Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren Testu Bateratzailea onartzeari buruzkoa.

II. ERANSKINA INSTRUKZIOA

14. Erregela Elementu zergagarriak.

1. 1. Erregelako 2.b) atalean oharteman-dakoaren eraginetarako, elementu zergagarritzat kuoten zehaztapenerako Tarifek edota Erregela honek itxuratutako ihardueraren indize moduluak hartuko dira. Ondoren elementu zergagarri nagusiak azaltzen dira:

F) Lokalen azalera.

a) 1. Sekzioko ohar orokorrak eta Tarifetako 2. Sekzioko bigarren ohar orokorrak aipatzen duten azalera elementuaren, aplikapenaren eraginetarako, Instrukzio honetako 6. Erregelan zergapetutako iharduerak burutzen diren lokalizat zehaztutakoak hartuko dira honetan ere horietakotzat.

b) Horretarako, lokal azaleratzat bere poligonoaren barnean sartutako osoa hartuko da, metro karratutan agertuta, eta, kasua balitz, bere solairu guztietako azalaren batuketa.

Aurreko pasartean ohartemandakoa dela ere, azaleratzat honakook hartuko dira:

1.a Lehengai edo edonolako ekoizkinen gordailutegi, aire zabaleko, lehortegi, ur-biltegi eta, orokorrean, halako ihardueraren edozein alderditara emandako eraiki edo estali gabeko azalaren 100eko 20a. Aurreko lerroetakoa bere hortan dela ere, zergapetutako iharduerari zuzenean loturiko edo zergen alderdiren bati loturiko kirol instalazioen kasuan, azalaren 100eko 5a bakarrik hartuko da kontuan, kirol ikuskizunetara dihoan jendearentzako jarritako harmailak eta gainerako instalazio iraunkorrek hartzen duten azalarena izan ezik; azken horren 100eko 20 hartuko da.¹⁰⁴

Beraz, ez da zenbatuko dagokion iharduera edo honen alderdiren bat zuzenki burutzeko erabili ez dadin eraiki edo estali gabeko azalerarik, bide, lorategi, segurtasun-gune, aparkaleku, etab. kasu, inolaz ere zenbatuko.

2. Garaiko ihardueretarako kalebidea saltoki eta antzekoen bidez okupa dadin azalera osoaren 100eko 40a.

3. Mota guztietako kirol instalazioen eta zinema, antzerki eta antzeko ikuskizunetarako lokalen azalera estali edo eraikiaren ehuneko 10, salbu kirol, zinema, antzerki eta antzeko ikuskizunetara dihoan jendearentzat jarritako harmailak, eserlekuak eta gainerako instalazio iraunkorrek hartzen duten azalera; azken horretatik ehuneko 50 konputatuko da.¹⁰⁵

4. Irakaskuntzaren maila guztietara emandako lokalen azalaren 100eko 50a, iharduera hau aurretik salbuetsia ez dagoenean.

5. Mota guztietako biltegi eta gordailutegien azalaren 100eko 55a.

6 Estalitako aparkalekuen azalaren 100eko 55a.

c) Aurreko b) hizkian jasotako arau guztien aplikapenetik atera dadin metro karratu kopurutik, 100eko 5aren kenketa egingo da kasu guztietan, zergapetutako iharduerari zuzenki atxeki gabeko hutsune, enpresa-jangela, igongailu, eskailera eta bestelakoen zioz.

Ostalaritza-iharduera den kasuetan, aurreko pasarteak aipatutako dedukzioa 100eko 40koa izango da, hau, bakar-bakarrik, ostalaritza-iharduera nagusiari zuzenki emandako eraikitako azaleraren metro karratu kopuru osoaren gainean egingo delarik.

d) Azalera elementua zenbatekotzeko, honako koadro hauek aplikatuko dira:

1. 1. Koadroa: Koadro hau Tarifetako 1. Sekzioko 1etik 6rako Dibisioetan eta haien 2. Sekzioan sailkatutako iharduerak buru daitezen lokalen azaleraren balioa zenbatesteko aplikatuko da.

EURO METRO KARRATUKO

LOKALAREN AZALERA	ESKUBIDEZKO BIZTANLEGOA				
	100.001 biztanle baino gehiago	50.001etik 100.000 biztanlera	20.001etik 50.000 biztanlera	5.001etik 20.000 biztanlera	5.000 biztanle baino gutxiago
0tik 500 m ² tara	0,504850	0,330557	0,204344	0,102172	0,042071
500,1etik 3.000 m ² tara	0,390658	0,252425	0,150253	0,078132	0,036061
3.000,1etik 6.000 m ² tara	0,312526	0,210354	0,126213	0,066111	0,030051
6.000,1etik 10.000 m ² tara	0,270455	0,174294	0,108182	0,060101	0,020051
10.000tik m ² gora	0,234395	0,150253	0,090152	0,048081	0,024040

2. II. Koadroa: hau Tarifetako 1. Sekzioko 7 Dibisioan sailkatutako garraio eta komunikazio-iharduerak buru daitezen lokalen azaleraren balioa zenbatesteko aplikatuko da.

EURO METRO KARRATUKO

LOKALAREN AZALERA	ESKUBIDEZKO BIZTANLEGOA				
	100.001 biztanle baino gehiago	50.001etik 100.000 biztanlera	20.001etik 50.000 biztanlera	5.001etik 20.000 biztanlera	5.000 biztanle baino gutxiago
0tik 500 m ² tara	0,378638	0,246415	0,144243	0,078132	0,036061
500,1etik 3.000 m ² tara	0,288486	0,192324	0,114192	0,060101	0,030051
3.000,1etik 6.000 m ² tara	0,240405	0,156263	0,096162	0,054091	0,024040
6.000,1etik 10.000 m ² tara	0,204344	0,132223	0,084142	0,048081	0,024040
10.000tik m ² gora	0,186314	0,120202	0,072121	0,042071	0,018030

3. III. Koadroa: Koadro hau Tarifatako 1. Sekzioko 8 Dibisioan sailkatutako finantz-erakunde, aseguru, enpresei eskeinitako zerbitzu eta alogera-iharduerak buru daitezen lokalen azaleraren balioa zenbatesteko aplikatuko da.

EURO METRO KARRATUKO

LOKALAREN AZALERA	ESKUBIDEZKO BIZTANLEGOA / POBLACION DE DERECHO				
	100.001 biztanle baino gehiago	50.001etik 100.000 biztanlera	20.001etik 50.000 biztanlera	5.001etik 20.000 biztanlera	5.000 biztanle baino gutxiago
0tik 500 m ² tara	1,196014	0,781316	0,468789	0,240405	0,096162
500,1etik 3.000 m ² tara	0,919549	0,601012	0,366617	0,186314	0,078132
3.000,1etik 6.000 m ² tara	0,739245	0,480810	0,288486	0,144243	0,060101
6.000,1etik 10.000 m ² tara	0,625053	0,408688	0,246415	0,126213	0,054091
10.000tik m ² gora	0,540911	0,348587	0,216364	0,108182	0,048081

Azalera elementuaren balio osoa, kasua balitz, lokalen azalera-tarteune bakoitzaren zati-balioaren batuketak emango du. Aipatu zati-balioak azalera-tarteune bakoitzean zenbatu beharreko metro karratu kopurua hauei lokala kokaturik dagoen Udalerriaren eskubidezko biztanlegoaren eratzean ezarritako euroko puruagatiko biderketaz zenbatetsiko da.

e) Aurreko d) hizkian jasotako koadroen aplikapenaren ondoriozko azalera elementuaren balio osoa, ondoko koadroaren arabera dagokion zuzenketa-koefizientearen aplikapenaz haztatuko da, subjektu pasiboak buru dezan iharduera mota eta honentzat azalera elementua kontutan hartu aurretiko Tarifen aplikapenaz atera dadin kuotaren zenbatekoa gogoan izanik:

KUOTAREN ZENBATEKOAREN ETA JARDUERAREN IZAERAREN ARABERA APLIKATU BEHARREKO KOEFIZIENTE ZUZENTZAILEAK:

KUOTAREN TARTEAK Euroak	1. SEKZIOA 1.etik 7.erako eta 9. SAILKAPENAK	1. SEKZIOA 8. SAILA
37,32 a 622,05	1,0	0,5
622,06 a 1.244,10	1,5	0,5
1.244,11 a 3.110,24	2,0	1,0
3.110,25 a 6.220,48	2,5	1,5
6.220,48tik gora	3,0	2,0

f) Lokal berean subjektu pasibo batek edo batzuk iharduera bat baino gehiago buru dezatenean, bakoitzari zuzenean erabilitako azalera egotziko zaio, lokalen beste zatitik guztiek hartzen dutenetik dagokion heintasunezko zatia gehituz. Aurrekoa egiterik ez balego, iharduera bakoitzari lokal osoa beren kopuru osoaz zatitzeagatiko emaitzaz lor daitezen metro karratuak egotziko zaizkio.

g) Probintzia eta estatu-kuota bereziak zenbatesteko, kasu guztietan, iharduerari zuzen edo zeharka atxikitako lokal guztien azalera elementuaren balioa hartuko da gogoan. Balio hori zenbatesteko aurreko a), b) eta c) hizkietan jasotako arauen arabera zenbagarriak diren azalera metro karratu guztiak gehituko dira, eta honako koadro hau aplikatu:

PROBINTZIA-KUOTAK ETA ESTATU-KUOTA BEREZIAK

0tik 500 m² tara: 2,337937 euro.

500,1etik 3.000 m² tara: 1,712884 euro.

3.000,1etik 6.000 m² tara: 1,400358 euro.

6.000,1etik 10.000 m² tara: 1,153943 euro.

10.000 m² tatik gora: 0,997680 euro.

h) Gutxienezko udal-kuotaren ziozko subjektu pasiboek dagozkien iharduerak buru ez ditzaten lokaletako bakoitzak, zuzendaritza-zentruak, administrazio-bulegoak, kalkulu zentruak eta ahalmena duen biltegi edo gordailuak kasu, 10. Erregelaren 1 atalaren bigarren pasartean oharmandako gutxienezko kuoten zioz zerga emango du. Aipatu gutxienezko kuota aurreko d) hizkian jasotako koadroetatik dagokionaren aplikapenaren emaitzaz lortuko da, oso-osorik, zenbateko hau e) hizkian jasotako koadroko koefizientearen aplikapenaren zioz haztatzeak biderik ez duelarik.

i) 1991ko abenduaren 31n Kokapenaren gaineko Udal Zerga indarrean egon ez dadin Udalerrietan, gutxienezko udal kuotaren zioz zerga eman dadinean lokalen azalera elementu zergagarriari dagokion kuotaren zatia murriztu egingo da, horretarako ehuneko hauek aplikatuz:

a) 1992an zehar, 100eko 80ko murriztapena.

b) 1993an zehar, 100eko 60ko murriztapena.

c) 1994ean zehar, 100eko 40ko murriztapena.

d) 1995ean zehar, 100eko 20ko murriztapena.

j) F) letra honetan araututako elementu tributarioa ez da kuoten zehaztapenerako aplikatuko, baldin eta kuota horiek kalkulatzeko Zergaren tarifek espreski kontuan hartu duten elementu tributarioa jarduerak burutzen diren lokalen azalera izan bada, metro karratutan konputatua.

Aurrekoaren ondorioz, tarifen errubrika jakin batzuetan metro karratuak aipatzen direnean (1. sekzioaren 647.2, 647.3 eta 647.4 epigrafeetan gertatzen da hori), aipamen hori bertan jasotzen diren jarduerak definitu eta sailkatzeko bakarrik egiten dela ulertzen da. Beraz, metro karratuen aipamena ezin da kuotaren elementu tributario konfiguratzaileztat hartu, eta horrelakoetan, aurreko parrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko.